



euskaldunon konparttsaren aldizkaria

ARATUSTEAK 07

SANTO TOMAS

KORRIKA 15





GIRO POLITA, LAN EGUNA IZAN ARREN



Hau Pittu Hau-ko kideak txosnan bildu ziren goizean sagardoa dastatzeko

Lan egunean izan zen Tomas Deunaren Azoka eta Hau Pittu Hau-ko konpartsakide askok lan egin behar izan zuten. Hala eta guztiz ere, jai eguna izan zutenek izugarri gozatu zuten goizetik eta, besteok, langileok, arratsaldez hurbildu ziren giroa dastatzeko. Goizeko hamabietan bildu zen konpartsa Koordinakundearen txosnan aurtengo sagardoa dastatzeko asmoz. Ordu berean txalaparta saioa hasi zen Bilboko konpartsen eszenatokian.

Arratsaldeko ordu bietan Hau Pittu Hau-k txanda bete behar zuen txosnan eta Someratik Areatzara

abiatu ziren marraskiloak lana betetzeko. Aurten ez ginen txanda arduradunak, beraz oso arin pasatu zen denbora, zerbitzatzen eta

*Lana amaitu
ostean
eztabaida txiki
sortu zen*

lagunak agurtzen zituzten bitartean gure Hau Pittu Hau-ko kideek.

Lana amaitu ostean, bazkaltzeko ordua zen eta eztabaida txiki bat sortu zen zeozer jatearen aldekoen eta kontrakoen artean.

Ohiko denez batzuk bazkaltzera joan ziren, beste batzuk poteak hartzen jarraitzen zuten bitartean.

Poteak hartzeaz gain, Tomas Deunaren egunean Bilboko Konpartsek zozketatzen duen otarraren boletoak saltzen ere ibili ziren Hau Pittu Hau-ko kideak Somera gora, Somera behera.

Arratsaldeko seietan batu zen taldea txosnaren aurrean. Han ere lanetik etorritakoak agertu ziren Tomas Deunaren azken orduak dastatzeko asmoz. Baina hurrengo eguna lan eguna zen eta denbora gutxi izan zuten konpartsakideek jaiaz gozatzeko.



Eguraldi txarra baina umore ona, Korrikan parte hartzeko

HAU PITTU HAU-K ERE KORRIKARI HELDU ZION

Martxoaren 22an Karrantzatik abiatu zen Korrika 15 Euskal Herria igaro ostean Iruñeara heltzeko apirilaren 1ean. Korrikak lehenengo aldiz bisitatu zuen Karrantza. Hamalau edizio ospatu eta gero, igaro ez ezik, hasi egin zen Korrika 15 Bizkaiko eskualde honetan.

Arratsaldeko 17:30etan lekukoak lehen urratsak eman zituen Carlos Santisteban Karrantzako idazle euskaldunaren

eskutik. Santistebani amak eman zion lekukoa eta kilometroa amaitu aurretik idazleak alabari pasa zion.

Hainbat Euskal Herriko herritatik pasa ostean Bilbora heldu zen Korrika martxoaren 26an. Hau Pittu Hau-k Hurtado Amezaga kalean hartu zuen Korrika beste konpartsekin batera. Atzerapena galanta ekarri zuen Korrikak, Bilboko kaleetatik galdu zen eta.

Bilboko Konpartsen

aldetik lekukoa eramatea txupinerari zegokion. Euskarari heltzen jakin duen Euskal emakumea omendu zuen Korrika 15ek eta, horrexegaitik, aurtengo txupinerarekin bat egin zuten aurreko urteetako txupinerek.

Karrantzan euripean hasi zen Korrika eta Bilbon ere euria parra-parra bota zuen Korrikak Bizkaiko hiriburuko kaleak igaro zituen unean. Abando geltokian babestu ziren



Hau Pittu Hau-ko kideak eta beste konpartsak korrika heltzen zen bitartean. Hala ere, harrera jendetsua eta koloretsua izan zuen Korrikak Bilboko Konpartsen kilometroa heldu zenean.

Iniciativa Gitana elkarteak pasatu zien lekukoa konpartsei. Abandotik udaletxeraino eraman zuten konpartsek lekukoa, baina konpartsakide gehienek aurrera jarraitu zuten nekea agertu arte.

Beste batzuek udaletxearen ondoan utzi zuten Korrika hurrengo eguna beharrean ibili behar zuten eta. Dena dela ez zioten agur esan Korrika 15i, gero arte baizik. Iruñako azken kilometroan korrika egiteko asmoz etxera joan ziren Hau Pittu Hau-ko konpartsakideak. Eta holan egin zuten, apirilaren 1ean marraskileok hitza bete zuten eta Iruñean agertu ziren.



Txupinerak izan ziren protagonistak konpartsen kilometroan

NI K DAUKAT TI MEDI KUAK ESAN D

Uribarriko Korrika-jaiara joateko pentsatu zuten Hau Pittu Hau-ko kideek umeentzako kanta hori entzun zutenean

Korrika euripean hasi eta amaitu zen. Hala eta guztiz ere, Bilbon, Uribarri auzoan, martxoaren 24an, Korrika Donostiara abiatzen zen bitartean, atertu zuen, eta jai egun ederra antolatu zuten, Korrikaren aldekoa.

Ez pentsa aurrikusten zena oso baikorra zenik, bai eguraldiak, bai jaiaren antolakuntzak hodei ilunak zekartzan, baina antolatuta zegoen egitarauari eutsi

*Ber
bazk
jan g
eta b
eder
das
geni
Ark
Estib
eta O
Bart
esh*



Gaztaren pisua asmatzeko bide ona

K TIK TIK ETA
IT...

rtso
arian
gozoa
bertso
rrak
tatu
tuen
aitz
alles
hiana
ra-ri
ker

zitzaion fede eta esfortzu handiz.

Jai eguna heldu eta Uribarriko Korrikako batzordekoak aldapan gora eta behera zihoazen bitartean, dena prestatzen, triki poteoa hasi zen, eta euririk ez. Ondoren bertso bazkarian jan gozoa eta bertso ederrak dastatu genituen Arkaitz Estiballes eta Ohiana Bartra-ri esker.

Arratsalde - gauean, sagardo upela, parrillada eta erromeria, euskaldun baten zerua. Eta ondoren Deustuko jaietara, egun osoko giro ederrari behar den moduko bukatzeko.

I NDAUTXUKO AFARIA: HORI BAI KORRIKA EGI TEA

Zelako gaua! Azkenien dana ondo urten zan, baina aurreko egunetan kriston kekkak geneuzkan danok.

Azken momenturarte ez zan jakin non afalduko gendun, zenbat pertsona etorriko ginan, zeintzuk izango ziran bertsolariak... duda asko antolatzaileak lasai egoteko. Aintzane gixajoa aurreko

egunetan beti korrika alde b a t e t i k b e s t e r a , presaka beti, mugokorra beti eskura, ehundaka dei egunero...eskerrak azkar ta ondo mugitu zala. L a n a baliogarria izan zan azkenien ta d a n a p r i m e r a n urten zan.

Ikusi behar errubiaren aurpegi lasaia afaria amaitu ta gero, zelako lasaitasuna ta barne pakea disdiratzen eban!

Janaria goxo, lekua apropos, bertsolariak onak bezain jatorrak... lagun asko bildu ginan ondo pasatzeko asmoz. Akats bat bakarrik: Bertsolariak bertsoak botatzen ari ziran bitartean ganorabako bi

tentelarena egiten aritu ziran ta besteok ezin ausartu "Ssshhh" baino gehiagorik esaten, bestela dana ondo.

Han izan ginan Konpartsakide asko: Pittu, Iñigo, Pako, Amagoia, Leire, Miji, Aintzane, Txomin, Eneko, Dani,... Lehenengo bertsoak korrikarentzat, beste batzuk mahakideontzat

(batez ere Pako ta bere txistu a , Eneko ren neska - Itxaso- ta bere lagunarentzat - Nagore-) ta a z k e n b e r t s o e n artean batzuk be geugaz egon ezin ziranentzat.

Bertso saioa amaitu ta danok gora, kopatxo gehio

hartzera. Handik urten ta taldea Bilbotik zabaltzen hasi zan: batzuk jada etxera, beste batzuk alde Zaharrera ta besteok inguritik ("Kontuz, mobida omen dago" eh! Dani?) handik aurrera... barkatu baina ez dot gogoratzen, ez dot berriz edango.... hurrengo astebururarte, kar, kar, kar

Lehenengo bertsoak Korrikarentzat ta azken bertsoen artean geugaz egon ezin ziranentzat



Barraskiloaz eta kandelaz mozorrotuta urteurrena ospatzeko

EKI TALDI ETA KALE

Inauterien jaitsiera Kale Nagusira bueltatzearen aldekoa zela esan bazuen ere, Udalak kontrakoa erabaki zuen azken unean eta Hurtado Amezaga kaletik desfilarazi gintuen. Bilboko Konpartsen ustez, kale hau, espazio ezagatik eta argiztapen faltagatik, ez da egokiena inauterietako jaitsierarako; baina, hala eta guztiz ere, hara abiatu ziren Hau Pittu Hau-ko kideak kandelaz eta barraskiloz mozorrotuta.

Aurten, gure hogeigarren urteurrena da eta, era horretan mozorrotuta, jai euskaldunen alde lan egiten eman ditugun urteak erakutsi nahi genizkien bilbotar guztioi. Eguraldiak ez zuen bat egin gurekin. Euria barra-barra ari zuen jaitsieran eta konpartsakide guztiok mela-mela eginda bukatu zuten desfilea. Batzuek txinatar batetara joan behar izan zuten mozorro berriak erosteko, urak jaitsierarako prestatutakoak apurtu baitzituen.

Nahiz eta desfilea Kale Nagusitik ez izan eta eguraldi kaskarra egin, jende asko hurbildu zen Hurtado Amezaga kalera konpartsek prestatutako mozorroak eta karrozak ikusteko. Hau Pittu Hau-k





BERRI AK I NAUTERI ETAN E NAGUSI A EZ

Aurten ere ezin izan dugu Kale Nagusitik jaitsi eta Hurtado Amezagatik desfilatu zuten Hau Pittu Hau-ko kandelegak eta barraskiloek euripean. Aratusteak indartzeko asmoz beste ekitaldi

batzuk sortu zituzten Bilboko Konpartsek “Zaratada eta Trapu Zaharrak” kalejira eta Sardinaren Hileta, hain zuzen ere. Eta ekitaldi horietan ere egon zen Hau Pittu Hau giroa sortzen.

ere eguraldiari aurre egin zion eta tarta erraldoi batekin agertu zen desfilearen irteera lekuan, bere umore ona eta goizez prestatutako koreografia erakusteko asmoz. Kamioiaren gidariaren laguna etorri zen gurekin eta oso ondo pasatu zuen. Ondo baino hobeto konpartsakide batzuen ustez eta etxera heltzeko gai izango zen galdetzen zioten beraien buruari.

Jaitsiera La Najan bukatu zen eta han, Bilboko Konpartsek jarri zuten karpan, sari-banaketa egin zen. Hau Pittu Hau-k aurten ere ez zuen saririk jaso; baina, hala ere, primeran ibili ginen azken indarrak erre arte.

Ekitaldi berriak

Bilboko Konpartsen Federadundeak indartu nahi ditu Bilboko

aratusteak. Horrexegaitik, alde batetik ekitaldi berri bat sortu zuten, “Zaratada eta Trapu Zaharrak” izeneko kalejira hain zuzen ere; eta bestetik, Sardinaren hileta berreskuratzea proposatu zuen.

Ostegunean, Aratusteei ongi etorria emateko Areatzan bildu ginen konpartsa guztiak. Trapu

*Inauteri, Inauteri
Ai, Bilboko Inauteri
Ez al zaituzte jantzi nahi
Instituzionalegi
Beldurra dlote herriak
Sortutako edozeri
Baina herriak sortua
Herriarentzako bedi
Hala nahi lukete balna
Ez gara egongo geldi
Mozorro berriak jantzi
Margotu masail ta begi
Konpartsen Bilboren alde
Lanean nahi dugu segi
Bilbo moduko hiririk
Munduan ez baltaude bi*

Arkaitz Estiballes



Arkaitz Estiballes-en bertsoak abestu zituzten konpartsakideek



Plaza Berrian eman genion azken agurra Sardinari

zaharrez jantzita eta zarata haundia sortzen dituzten tresneekin "Zaratada eta Trapu Zaharrak" kalejira hasi genuen 19:30etan. Zazpikaleak igaro zituen kalejirak eta La Najan bukatu. Ibilbidean zehar txorizo pintxoak banatu ziren eta Bilboko Konpartsek Bailen kalean jarritako eszenatokian ongi etorria eman zitzaizen inauteriei Arkaitz Estiballes-ek idatzi zituen bertsoen bitartez.

Bilboko Konpartsen ustez Sardinaren Hileta berreskuratu behar dugu eta protagonismo gehiago hartu behar dute konpartsek ekitaldi honetan. Horrexegaitik, kalejira antolatu zen San Anton eleizatik Plaza Berriraino. Arratsaldeko zazpitan konpartsa

guztiak bildu ginen beltzez jantzita eta kaldelekin helburu bakar batekin: Sardina Plaza Berrira eraman eta azken agurra eman. Baina azken unean, eta ohikoa denez,

*Benetazko
sardinarik ezean,
sardina latak
eraman genituen
hiletara*

Udalak bere hitza apurtu zuen eta ez zigun Sardina utzi ibilbidea egiteko. Hala ere, Sardina egon bazegoen Bilboko Konpartsek antolatutako Hiletan eta, benetazko Sardinarik ezean, sardina-

latak eraman genituen.

Azken egunean ere euria agertu zen eta euripean egin genuen ibilbide guztia Zazpikaleetatik. Kaldela esku batetan eta bestean sardina-lata Somera kaletik hasi genuen prozesioa. Batzuk negar egiten eta beste batzuk zer egin jakin barik. Tristura aurpegia jarri behar genuen baina fanfarriak jo zuen musika oso alaitsua zen eta ez zuen asko laguntzen. Beraz, edateari ekin genion bihotzminak kentzeko. Edariarekin batera gosea agertu zen eta sardina-latak jan genituen ogia erosi ostean. Plaza Berrian bukatu zen hileta-martxa berezi hau. Sardina erre genuen eta bukatutzat eman genituen inauteriak hurrengo urte arte.



ELASTIKO BERRIA I ZANGO DU HAU PITTU HAU-K HAU-K ASTE NAGUSI RAKO

Ekainaren 2an izango dira 20. urteurrenaren ospakizunak

Hurrengo Aste Nagusian elastiko berria estreinatuko du Hau Pittu Hau-k. Konpartsaren elastiko berria lehiaketa baten

bitartez erabaki zen eta, Itziarrek eta Naiarak proposatu zutena aukeratu zuen Hau Pittu Hau-ren biltzarrak. Behean ikus

daitezkeen diseinu aldatekez gain, material berria ere erabiliko da mauka luzeko elastikoan, poliester hain zuzen ere. Mauka laburreko elastikoa, ordea, kotoizkoa izango da orain arte bezala. Horrez gain, urteurrenaren logoarekin kamiseta berriak ere izango dituzte esku konpartsakideek. Hau Pittu Hau-ren urteurrenaren jaietan egongo dira salgai.

Urteurrenaren ospakizunak

Ekainaren 2an Kukatza gaztetxean ospatuko du Hau Pittu Hau-k bere 20. urteurrena. Ospakizunak une nagusia Etsaiak taldearen kontzertua izango da, baina jaiak goizetik hasiko da poteo batekin. Arratsaldeko 14:30ean Kukatza gaztetxean bertso-bazkari egongo da Onintza Enbeitia eta Iratxe Ibarra bertsolariekin.

Bazkaria bukatu ondoren triki poteo egingo du Hau Pittu Hau-k Errekaldeko kaleetatik. Eta jaiari bukaera on bat emateko Etsaiak taldearen kontzertua. Gaueko 21:00etan hasiko dira kontzertuak. Hasierako taldea Deskontrol izango da eta bukatzeko Etsaiak.





UDALERRI ETAN HIZKUNTZA POLITIKA BERRI

ZER DA UDAL HIZKUNTZA POLITIKA?

Hizkuntzen garapenerako udaletik ere abiatzen den neurri politiko sorta.

ZERTARAKO H

Udaletatik hartu...
edo itozteko ga...

NOLA NEURTU DIRA HIZKUNTZA POLITIKAK?

Herrika lan taldeak sortu dira eta lekuan leku, galdetegi batetaz lagunduta informazioa biltzen aritu dira ehunka lagun. Jasotako datuak askorritakoak izan dira (grafikoak, argazkiak, dokumentuak, ahozkoak...).

ZERGAITIK POLITIKAK?

Kontseiluak... politikak neur... neurketako... lekuan leku... nabarmentz... ekimenak er...

6,82 AZPEITIA
6,58 LEKEITIO
6,12 GERNIKA

5,85 ELGOIBAR
5,64 BEASAIN
5,1 MUNGIA

4,98 EIBAR
4,64 GALDAKAO
4,22 DONOSTIA

3,88 DURANGO
3,55 GASTEIZ
3,01 SESTAO

2,61 BILBO
2,26 LAUDIO

1,75 IRUÑEA
1,57 PORTUGALETE
1,31 SANTURTZI
1,13 BARAKALDO

0,23 DONIBANE
0,002 BAIOA

0 TUTERA

ZENBAT PUNTU LORTU DITU BILBOKO UDALAK ETA KONTSEILUAK?

2,617 puntu lortu ditu Bilboko Udalak.

Ondorioak:

- + Herritarren aholkularitzarako zerbitzu espezifikoetan euskarazko zerbitzuak eskaintzen ditu Udalak.
- + Langileei euskara ikasteko bitartekoak eskaintzen zaizkio.
- + Merkataritzan euskalduntzea eragiteko egitasmoa abian da.
- + Udal erabakia hartu da bi kontrata nagusiek euskarazko zerbitzuak eskaintzen.
- Ez dago euskara ordenantzarik
- Erdara hutsezko jakinarazpen publikoak plazaratzen dira.
- 2300 langile ingurutik 200 baino ez dira erabilera plan batean euskarazko zerbitzuak eskaintzen.
- egiteko prestatua: "Euskara zerbitzua"
- Aztertutako udaltzainen %20 baino ez da gai izan zerbitzua eskaintzen.

ONDORIOZ...

Bilboko hizkuntza politikan ia dena dago egiteko. Udaletik normalikuntzan aurrera pausuak emateko eta herritarrekin batera lan egiteko. Udal agintariei dagokie erronkari gogotsu heltzea... euskarari arnasa emango dioten bide eta egitasmo berriak top...



HIZKUNTZA- HERRIA

BADA GARAI A. . . !!

HIZKUNTZA POLITIKA EGOKIA?

zen diren neurriek, hizkuntza sustatu
arrantzia erabakigarria izan dezakete.

K NEURTU HIZKUNTZA ?

Euskal Herriko 66 herritako hizkuntza
tu ditu (tartean Bilboko). Aipatutako
emaitzekin "ranking" bat egin eta
u burutzen ari diren hutsuneaz
teaz gain, ondo egiten ari diren
e goraiatzen ari dira.

ZE ONDORIO NAGUSI ATERA DITU

zko zerbitzuak bermatzeko erabakia hartua

erbitzua berma dezaten.

a sartuta. Atala bakarra dago euskeraz lan

euskaraz eskaintzeko.

neurri ausartak behar dira euskararen
atera, euskalduntze prozesua bururaino
Bitartean dagokiguna aldarrikatzeaz gain,
patzen jarraitu beharko dugu.

Igaro den ikasturtean milaka eta milaka sinadura sinadura bildu ostean, eskolak euskalduntzearen aldeko aldarria aurrera darrai! Aurtengo honetan aldarrikapena herriz herri kalera atera dute herritar euskaltzale ugari. Lizarra, Gasteizen, Bilbon, Baionan, Tafallan, Portugaleten, Ordizian, Iruñean, Balmasedan, Altsasun... Euskal Herriko txoko desberdinetan burututako mobilizazioek, euskalduntzearen aldeko eskaera herritarrari bidea eman diote oraingo honetan.

Ekimen berri hauen xedea argia izan da: Ipar Euskal Herria eta Nafarroa Garaiko eskoletan hizkuntza eskubideen bermerako sakoneko aldaketak exijitzea eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, Jaurilaritzak abiatu ditzakeen iruzur berriei

ateak behingoz ixtea.

Horretarako Bilbon, ikasle, guraso, irakasle eta bestelako herritar ugari bat egin genuen martxoaren 2ko aldarrikapen egunean. Arratsaldeko lehengo ordutik haurrentzako jardueri eman genien tarte Plaza Berrian: gaztelu puzgarriak, txokolatada, magoa, tailerrak, musika... Bertatik Udaletxeraino abiatu ginen kalejiran eta bertan ekimenari bukaera eman genion, Udalak euskalduntzearen auzi honetan dauzkan ardurei erantzukizunez heltzea eskatzeko.

Honezkero, eskolen inguruko eztabaida puripurian dago gure herrian eta etorkizun gertuan euskalduntzearen aldeko sokatik berriz ere gogotsu ekitea egokituko zaigu. Ez zalantzarik izan.



Bilboko hizkuntza politikan ia dena dago egiteko



PORTUGALETEKO EUSKARA EGUNA DEBEKATU ZUEN UDALAK

Maiatzaren 2an ospatzekoa zen Portugaleteko Euskara Eguna kontu teknikoan aitzakipean debekatu zuen Udalak. Antolatzaileek, herritarron aldarrikapena isiltzeko, beste behin ere ezkutuko zentzura politikoa erabili dela salatu zuten eta «Portugaleten euskara ofiziala» lelopean manifestazioa antolatuzuten.

Hogei urte beteko ditu Hau Pittu Hau-k aurten eta urteurrena ospatzeko jai antolatu du Ekainaren 2an Kukutza gaztetxean. Sortu zenetik, euskeraz bizitzea eta jai euskaldunen alde lan egitea izan ditu helburu nagusizat konpartsak. Portugaleten gertatutakoak argi adierazten du lan handia geratzen dela konpartsaren helburua betetzeko.



DEIALDIAK

Maiatzaren 12an:

*Portugaleteko Euskara Eguna (Portugaleten)

Maiatzaren 14an:

* Herri Urrats (Senperen)

Maiatzaren 20an:

* Ibilaldia (Balmasedan)

Ekainaren 2an:

*Hau Pittu Hau-ren jai (Kukutza gaztetxean)

**Bertso bazkaria
Triki poteo
Kontzertua:
Deskontrol eta
Etsaiak**

Ekainaren 3an:

* Euskal Eskola Publikoaren jai (Ondarrun)

Ekainaren 17an:

* Araba Euskaraz (Argantzunen)

Uztailaren 21ean:

*Konpartsero Eguna

